



## Skate parke baten premia

**Ermuko kaleetan patinatzen elkar ezagutu zuten, eta kirol honekiko zuten zaletasunak lagun egin zituen. Ondorioz, Slap Dragon taldea sortzea erabaki zuten. Talde hau, Ermuko auzo ezberdinetako hogeitaz osaturik dago, nahiz eta gehienetan hamabi bat elkartzeko diren. Kamiseta alde dutela, Ermuko kaleetan zehar patinatzen aritzen dira, bereziki Kardenal Orbe plazan.**

**B**ederatzitik hamabi urteko gazte hauek, kalea, patinatzeko leku egokiena ez dela aitortzen dute, jendea oztopatzen dutelako, baina beste lekuri ez dagoenez ez dutela "beste erremedio-rik" diote. Horregatik badira aste batzuk, sinadurak jasotzen hasi zirenetik. Sinadura hauen helburua, udaletxeak euren berri izatea eta patinaje pista batzuk eraikitzea da. Zortziehun sinadura inguru jaso dituzte oraingoan, baina mila bat jaso nahi dituzte udaletxean aurkezteko.

Orain arte, Ermuko kale eta plazetan patinatu dute, eskailera eta zenbait oholen bitartez, malda antzerako batzuk eraiki dituzte eta ahal izan duten moduan moldatu dira. Baina horrela ibiltzea egokia ez dela diote, alde batetik beste gazte batzuek gauean oholak lapurtzen dizkietelako nahiz eta ondo

ezkutatuta egon, eta bestetik, edozein momentutan oholak apurtu eta zerbait gertatzeko arriskua dutelako. Duela urte batzuk ambulategi ondoko parkean bazegoen patinatzeko malda bat, baina gaizki zaindua zegoelako edota parkea berriztu zutelako ez zuten berriz eraiki.

### Lau pista ezberdin

Beraien ustez, egokiena 4 pista ezberdin eraikitzea izango litzateke. Alde batetik malda handi eta txikiak eta bestetik barrak eta U-ak. Udaletxeak beraien eskaera kontuan hartuz gero, maldak San Pelayon eraikitzea gustatuko litzateke Slap Dragoneko kideei, "xake taula ondoan edota parke berean, etxe berriak eraiki behar dituzten lekuan". Gauza handirik eskatzen ez dutela diote, "bakarrik patinatzen ari

direnak eta patinatzen dakigunok gustora ibiltzeko leku bat".

### Patinajea nagusi

Baina patinajea ez da beraien zaletasun bakarra, futbola, igeriketa eta pelota ere gogoko dituzte nahiz eta beraiantzat patinajea izan nagusi. Gazte hauek, kirol honekiko duten zaletasuna ez da kaleetan patinatzera murrizten; Patinajeari buruzko bideo eta aldizkariak ere erosten dituzte, gaiari buruzko telebista erreportaiak grabatu, eta interneten bitartez, beste patinadore batzuekin txateatzen dute. Halaber, Getxo, Durango eta Donostiako "skate park"-etara sarritan joaten dira eta inguruko herrietan ospatzen diren patinaje txapelketetara ere hurbiltzen dira, beti gurasoen menpe, beraien adina dela eta.

*Ibone Medina*

- \* Errehabilitazio zentrua
- \* Kirol medikuntza
- \* Zuzpertzeta funtzionala
- \* Ariketaren fisiologia
- \* Kirol masaia

**Diputazioa 8-10 (ERMUA)**



Tel. 943 17 21 12 - 17 21 16 Faxa. 943 17 21 12